

Julia Parra Lazcano

B maila • 1 aipamena

Ni, Julia Parra Lazcano, 2005eko apirilaren 1ean jaioa naiz. Betidanik, Beasainen bizi izan naiz nire guraso eta ahizparekin. Bi urte nituela, nire bizitzako etapa bat hasi nuen, Beasaingo La Salle San Jose ikastetxean hasi bainintzen. Gaur egun, ikastetxe berdinean, DBH 4.maila egiten ari naiz. Nire zaletasunei dagokienez, kirola egitea eta nire lagunekin ateratzea dira aipagarrienak. Espero dut nire idazlana gustukoa izatea!



LEIHOTIK BEGIRA

Ez beti, baina batzuetan, ez dakit, astean bi aldiz, ganbarara igotzen ikusten nuen. Bera bakarrik bizi zen haren katu beltzekin, Zuri eta Beltz izenekoak. Eta hori gertatzen zenean, pazientziarik gabe, itxaropentsu itxaroten nuen, nire leihotik, haren ganbara iluna piztu eta itzal hura dantzan ikusteko. Buru-belarri geratzen nintzen andre zaharrari begira, kartoizko irudi bati besarkatuta dantzatzen zuen bitartean. Tarteka, besaulki marroi eta zahar haietako batean esertzen zen, arnasa sakon hartzeko, eta gero, bere balkoi berde, estu, luze baina doteretsura atera eta bere lore eta landareak ureztatzen zituen.

Eztei-jantziarekin eta kartoizko irudiarekin dantzan ikusitako lehen aldia, zehatz mehatz nola gertatu zen oroitzen naiz. Balkoiko eskubandaren gainean nuen nire pisu guztia. Zerura begiratzen nengoen, erabat etsita. Minutu batzuk lehenago, irratian mundua laster akabatu behar zela entzun nuen. Zehazki, Abuztuaren 12an, nire 18. urtebetetze egunean. Nire bizitza jada deprimigarria zen, gazte gehienena bezalakoa. Ni ez nengoen batere ondo eta jarraitzeko gogoia agortzen ari zitzaidan. Aldi berean, itxaropentsu nengoen, bizitzak oztoporik jarri ez zien pertsoneri, behingoz ahalegintzea behartuko zituela pentsatuz. Zein inuzentea! Eta andre zaharra bertan zegoen, musika triste baten konpasak dantzatzen.

Lehen aldi horretatik, emakume zaharraren atzean ezkutatuta zegoen istorioa imajinatzen saiatu nintzen. Ezkondu aurretik bere mutil-lagunak baztertzten duen emakumearen istorioa; istripu ergel baten ondorioz ezkondu baino lehen alargun geratu zen emakume gazte baten istorioa; ama baten istorioa, bere alaba ezkondu aurretik hiltzen dena eta alabaren eztei-jantzia jartzea erabakitzen duena, gertu sentitzeko; senarra faltan somatzen duen eta emaztegaiaz janztea erabakitzen duen alargunaren istorioa; eta baita bere azken egunetan ezkontzako soinekoa erostea erabakitzen duen ero bakarti baten istorioa ere.

Baina eszena hori azaltzeko asmatu nituen istoria guztiak lausotu egiten ziren kartoizko mutil-laguna estutzen zuen atso hura ikusten nuenean, musikaren konpasarekiko, elegantzi eta moteltasunarekin mugituz, bere begirada fantasma edo espiritu horretan finkatuz. Ez dakit,

agian, espiritu horrekin komunikatzeko gai zen eta ez bakarrik entzuteko eta hitz egiteko, ikusteko eta harekin dantzatzeko baizik.

Nahiz eta amona zaharra behatzen nuen lehen aldietan ezkutatu, berak neu ez ikusteko, balkoira landareak ureztatzera ateratzen zenean, ezkutatzeaz utzi nion. Denbora pasa ahala, ni neu ikustea nahi nuen, bertan nengoela jakitea, bera behatuz eta begiratuz.

Eta lortu nuen, gau batean ikusi egin ninduen, landareak alde batera utzi zituen, pauso bat eman zuen aurrera eta ni, eta bakarrik ni begiratuz pasa zuen minutu bukaezin bat. Hasieran, segundo batez, ezkutatzeaz pentsatu nuen baina ez nuen egin, andreari begira geratu nintzen. Eta imajinatu ere egin nuen ez nintzela atsoaren dantzen ikusle bakarra, errealitatean fatxadako auzokide guztiak ikusten ari zirela eta nire pentsamendu berdinak zituztela.

Egia esanda, gau hori pasa eta gero, maiztasun gehiagorekin igo zen ganbarara. Ez gauero, noski, baina nik itxaroten jarraitzen nion pazientziarik gabe. Egunero entzuten nuen irratian albiste berdina, Abuztuaren 12-ko munduaren suntsipena. Ez nion zentzurik ikusten denak batera hiltzeko gertaerari, baina horrela izan behar zen, eta ezin genuen batere egin hori saihesteko.

Normalean nik ez nien erabateko garrantzirik ematen aurreesan haiei. Baina, nire urtebetetzearen egun bat baino lehenago, urduri jaiki nintzen, egun guztian ez nuen ezer jan ezta ezer egin ere, nire buruan pentsamendu bakar eta berdina zegoen momenturo, mundua akabatu behar zelako pentsamendua. Eta beldurra, etorkizunean inork gugandik ezer jakingo ez duen eta egindako ezer kontserbatuko ez den beldurra. Horregatik gau guztia, leihotik begira pasa nuen, ea emakume zaharra agertzen zen itxaroten.

Hil beharko banu, ez nuke bakarrik hil nahiko. Beraz gaueko hamabietan, nire 18 urtebetetzearengatik inork zoriondu aurretik, inoiz baina politago eta dotoretsuago jantzi nintzen, nire traje bakarrarekin. Gorbata bat janzten saiatu eta amona zaharra bere leihora agertzeko itxaron nuen nire balkoiko eskubanda-aren gainean. Ez zen atera gau hartan, beraz urduriago jarri nintzen.

Orduak ezer gertatu gabe igarotzen ari ziren. Eta ni, dotore nengoen jantzita oraindik. Bat-batean, albiste horietako batean goizeko hamaiketan gertatuko zela esan zutela burura etorri zitzaidan,. Hori pentsatu eta gero, arropa ere kendu gabe lo egin nuen, ez asko, noski.

Leihotik pasa aurretik, ea andrea ganbaran zegoen ikusteko, kalera atera nintzen. Mutil-lagunez jantzita, lore sorta bat erosi eta bere ate parera joan nintzen. Txirrina jo nuen eta nire adin berdineko neska gazte batek ireki zuen atea. Ederra zen. Segundo batzuk haren begietara begiratu ondoren, zer nahi nuen galdetu zidan. Eta momentu hartan jakin nuen, mundua bukatzen ez bazen, emakume horretaz maiteminduko nintzela eta berarekin ezkonduko nintzela. Baina ezkondu aurretik ni hilko nintzen. Horregatik bera ia gauero, eztei-jantziarekin jantzi eta ganbara igoko zen dantzatzera kartoizko irudi batekin.